

LUKIA TA ARRANOA



Ona emen Afrika'ko jakituriak agertzen dauan beste ipuin bat. Artu daigun bakoitxak damoskun irakatsia.

Lagun aundiak ziran lukia ta arranoa eta ekatzen ebena alkarrari emoteko zin eginda egozan. Bein baten lukiak bere semeari esan eutson:

– Zoaz eta esan arranoari aitag luma bat bear dauala jaurtikia apaintzeko.

Arin joan zan semea, baiña bide-erdian beste pizti bat aurkitu eban okerra zana, Karemamoto. Onek itandu eutson nora joian.

– Arranoa ikustera noa, aitarentzat luma bat eskatzeko.

– Zuk txarto ulertu dozu. Aitag luma guztiak gura dauz.

Lukikumea zalantzan jarri zan, baiña arranoari luma guztiak eskatu eutsozan.

Arranoa asarratu egin zan, baiña berbea berba dala-ta emon eutsozan luma guztiak.

Lukiak semea ainbeste lumagaz ikusi ebanean, pentsau eban adiskidetasuna agertzenko egiten ebala ori arranoak.

Arik egun batzutara arranoak semea bialdu eban ule bat eskatzeko, belarriak garbitzeko bear ebala-ta. Arranotxua bidez joiala, Karematoko aurkitu eban eta onek esan eutson.

– Nora zoaz?

– Lukiaren etxera noa amarentzat ule baten billa- eran-tzun eban arranotxuk.

– Txarto ulertu dozu. Amak narrua dana gura dau.

Zalantzan jarri zan arranotxua, baiña joan eta narrua dana eskatu eban eta lukiak emon egin eutson. Arranotxuak berak kendu eutson narrua.

Bata narru bagerik eta beste luma bagerik, biak alkartu ziran egun baten eta laster ikusi eben euren seme-alabak sartutako ziria. Eldu ziran etxera eta biak zigortu ebezan umeak. Oneik kolorga eta zazpuztuta, Karemamoto'ri iraktsi bat emotea erabagi eben, baiña errudun au iges eginda egoan.

Biak ikasi eben auxa: Gurasoakaz fietan ez dana, samintasunezko itxasoan itoko da egunean baten.



Olazar'tar Martin'ek